



## **Santa Maria katedralak Aranguren Ibarreko abesbatzaren kontzertua hartuko du bihar**

- 'Bosgarren Ebanjelioa' izeneko ikuskizuna eskainiko du, alegia, bizitzaren une zehatzak kontatzen dituzten lan polifonikoen kontzertua
- 19:30etan hasiko da eta sarrera doakoa da, habearteko toki guztiak bete arte

**Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 16an.-** Santa Maria Katedralaren habearte zentralak Aranguren Ibarreko abesbatzaren ikuskizuna hartuko du bihar, larunbata. 'Bosgarren Ebanjelioa' izeneko ikuskizuna eskainiko du, alegia, Jesusen bizitzaren une zehatzak kontatzen dituzten lan polifonikoen kontzertua. 19:30ean hasiko da eta sarrera doakoa da, habearteko toki guztiak bete arte.

Aste Santua baino egun batzuk lehenago, Santa Maria Katedrala erlijiozko ospakizun horretan kokatzen den errezitalaren lekuko izango da. Aranguren Ibarreko abesbatzak 'Bosgarren Ebanjelioa' eskainiko du. Honela deskribatu dute: "Jesus eta Mariaren historiari buruzko kontzertua, Jesusen bizitzaren une zehatzak kontatzen dituzten lan polifonikoen bitartez haien presentziaz ongi jabetzeko".

Aranguren Ibarreko abesbatza kantu korala sustatzen duen erakundea da. Nafarroan, Iruñetik gertu dagoen Aranguren Ibarrean kokatuta dago eta hark ematen dio izena. 1993an sortu zen erakundea, eta egun 47 ahots mistok osatzen dute. 2001. urteaz geroztik Gonzalo Esparza da zuzendaria. Errepertorioak kantu koralaren historiako aro guztiei buruzko abestiak ditu, erlijiozkoak zein profanoak, Errenazimentutik hasita gaur egun arte. Haien antzezpenekin, iraganeko eta gaur egungo maisu polifonisten lana ohoretu nahi dute. Kontzertu eskaintza zabal eta bizia dute.

Santa Maria Katedralaren habearte nagusian eskainiko duten kontzertua 19:30ean hasiko da. Sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte.